

Ausartuko naiz

Esatara, hau idatzit bitartean oraindik ofizial egin ez den arren, Patxi Lopez lehendakari ohia, berriro ere izanen da lehendakaria, oraingoan Espainiako Kongresuarena, aurreko kargu instituzionalen bezala, PPrekin izandako hitzarmenari esker.

Ausartuko naiz, halaber, esatera itun hau beste baten aurrerapena baino ez dela. Ausartuko naiz ez bakarrik esatera, are burua egitera ere hau irakurtzen ari zareten guztiak ez bada, ia-ia, baietz ados egon nire hemengo ausardiekin.



JIRA
Angel Erro

Nahikoa koldarra naiz azkenean ausartzera ausartzen naizenean.

Aldarte oneko babilenez, haratago joan eta ausartuko naiz esatera ketan joanen direla aste honetan Eusko Legebiltzarreko autogobernu lantaldean aurkeztutako proiektuak eta batez ere proiektu ezak. Ausartuko naiz esatera EH Bilduk aldebakarreko bidea proposatzen duenean badakielako gaur egun nora daraman eta batez ere nora ez daraman. Ausartuko naiz esatera hitza, aldebakarrena, entzun eta zimiko bat sentitzen dutela EAJko agintariek. Ausartuko naiz esatera sentimendu hura beldurra dela. Larrimina, zorabioa. Ausartuko naiz gehiago: kalkulia. Ekonomikoa.

Ausartuko naiz iragartzera epaileek Cristina Borboikoa... Ausartuko naiz gehienok David Bowie... Ausartuko naiz Erdoganek.

Asmamena

Phelan and Collander enpresa iparamerikarrak plan handiak zituen bere produktuetako bat, mahai biltarra, mundura heda zedin. Aberas bidea ikusten zion, eta aisiak tokia hartzeko promesa egina zuen gizartean, publiko zabalaren entrentenigarri bihurtzeko aukera aparta. Baina baita ezinbestean gainditu beharreko eragozpena ere: billarreko bolak, garai hartan boli naturalez fabrikatuak, garestiegiak ziren (arteak, elefanteak hiltzeari eta betortzak erauzteari ez zitzaion beste adjektiborik ezaugutzen). 1860an lehia-ketara deitu zuen enpre-



BIRA
Garbine Ubeda

sak, material berria proposatuko zuen asmatzailearentzat 10.000 dolarreko amua jarrita. Hitzoratu hartarako espresuki, kanfor eta etanoletan disolbatutako zelulosa aurkeztu zuen John Wesley Hyatt, edo bestela esanda, zeluloidea. Ez zuen saririk eskuratu, baina zinemaren industriari fabore galanta egiteaz gainera, plastikoa asmatzeko lehen oinarria ezarri zuen koitaduak; gaur itsaso zabalean zator kontinente bat osatzeraino eta espezie mordoak mehatxatzeraino oldartu zaigun material horren abiapuntua, hain zuzen ere.

Ondo erreparatuz gero, patroli berari jarraitzen diote asmatzio guztiak: ingenioari loturiko historia bitxi bat, ezusteko karanbola antologiko bat eta, gerora, garapenez, madarikatzeko mila arrazoi.

Iritzia

Txillardegiren besarkada

Fito Rodriguez
Txillardegi Gogoan
taldearen izenean

Dagoeneko, lau urte badira Jose Luis Alvarez Enparantza, intelektual donostiarra, zendu zela. XX. mendearen erdian, nazioarteko kultur erreferentzia garaikideak eskal literaturara ekarri zituen. Fikzioaren arloan, sortzailea izanik, bizitza osoan idazkera egokira bila ibili zen. Entseguingintza, gogamen filosofikoari muzin egin ez zion saiogilea izan zen, piano jotzailea, hizkuntzalaritza, dialektologia, fonetikan, soziolinguistik eta glotopolitikan aditua eta aritua, unibertsi-tate irakaslea, euskal presoa, erbeste-ratua eta errefuxiatua, ETAREN fundatzailea eta borroka armatuaren amaieraren aldarrikatzailea, existentzialista eta, jakina, euskaltzalea.

Egungo Europar Komunitatearen ereserkia Beethovenen Bederatzigarren Sinfoniatik hartua da. Hark Friedrich Schillerren Alaitasunaren oda hartu zuen oinarritzat herrien arteko besarkada islatzeko, eta honela dio «*Seid umschlungen, millionen, dieser kuss der ganzen Welt*»; hau da, «besarkatuak izan zaitezte, milioiak, gizarteriari emandako muxu honetan».

Horixe bera eskaini nahi diogu due-la lau urte joan zitzaigun Txillardegiri, besarkada handi bat, hain zuzen ere, ukazio instituzionala gertuko gizatasunaz ordezkatu ahal izateko, Europako Kultur Hiriburutzaren estreinatze-ko dagoen haren sorterrian. Gaur da eguna, zeinena ez baita, Donostiako idazleok eskatuta eta ehunka donostiarrek aldarrikatuta ere, haren izena hirian inon aurkitzen: ez dago liburutegietan, ez du kalerik, ez oroiagarririk, ezta eraikinik ere, nahiz eta hil aurretik Hiriko Errekoizimenduzko Domina eman zitzaion.

Hari entzuna diot, lehenengo atxiloteta pairatu behar izan zenean, gordeta zuela Koldo Mitxelena euskarazko eskolak emateko berari utzi-tako Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregiaren Urkixo gelako giltza eta komeriak izan zituela hura ezkatutako eta itzultzeko.

Mitxelena eta Txillardegiren artean izandako harremanik gabe egun

ez genuke euskara batua erabiliko. Hala ere, denboraren poderioz, Txillardegiren eta jeltkideen arteko erlazioa ozpinduz joan zen eta Mitxelena-ekin ere distantzia hartu zuen. Gainera, harrigarria baita, EAJk euskarari buruz zuen jarreagatik gertatu zen hori. Hau da, hausturagunea EAJren euskarari buruzko politikarik eza izan zen. Handik aurrera, Txillardegiren joera sezesionismora lerratu zen, euskara «gerorako» uzten zuen EAJren uesteko pragmatismo autonomikoaren aurrean. Erduko Txillardegik intelektual europarrarentzat, bada, uti-kan erlijioa nahiz abizen etnikoak, bo-rroko kulturala baitzen harentzat abertzaletasunaren ardatza.

Orain, berriz, Mitxelena gogoratzen da eta Txillardegiren ekarria bazter-tu... (ikus Axularren galdegiteak eta Materraren ihardesprenak edo Mitxelena eta Txillardegiren arteko harremanak, Egan-2015). Izan ere, oraindik gehiago ikertzeko dagoen Txillardegi eta Mitxelena edo Mitxelena eta Txillardegi bikotea zela-eta, gauza pare bat geratu dira bakarrik argi: biak, sekulako intelektualek izan-ik, euskal kulturaren oinarri bihurtu-tako euskara batuaren sorreren batera aritu zirela eta, halere, bion gizarte errekonozimendua zeharo asimetri-ko dela egun. Horrela, Mitxelena onartua bezain aitortua den bitartean, Txillardegik aldarrikatzeko dugu oraindik.

Eta asimetria izan zen, hala sozio-linguistik nola politikan, Txillardegiren ikergairik kuttunena. Soziolin-guistika matematikoan eta kulturen

arteko harremanetan anisotropia eta diglosia aztertu zituen, ohiko Ferguson edota Psycharisen ekarpenez harago, hizkuntzen (eta hiztunen) arte-ko menpekotasuna zer den agerian uzteko.

Orain horren boladan dagoen Aniz-tasun linguistikoaren iraukortasun-ak (ikus Donostia/San Sebastian 2016, kultur programa, 12 or.) zer-no-lako morrontzak ezkatzen dituen argi erakutsi zuten Txillardegiren ikerketek. Abagune honetan hori dena ez dago ondo ikusita, noski, ikuspegi «agoniazkoak» gainditu be-har baitira. Txillardegik plaza-aritu-tuenean ere, ez ziren aintzat hartuak izan (*Euskal Herri-erdal herrietara*, 1978). Baina, denboraren poderioz, hizkuntzen ezagutzari kasu egitea baino gehiago, erabiltze moduetan eragin beharra dagoela onartzen dugu gehienok ezinbestean.

Herri mugimenduaren bidez (Eus-kal Herriaren Euskaraz) edo hizkuntza-ren estatusaren aldeko egiturak bul-tzatuz (Topaguneak, Kontseilua, etab.), euskararen corpus erabilgarria eraikitzeko akulua izatetik, hizkun-tza nazionalaren erabilerraz arduratu-ko ziren gizarte erremintak (ikerketak barne) sustatzera igaro zen (urteetan *Bat* soziolinguistika aldizkariaren zu-zenaria izan zen). Eusko Jaurlaritzak maite ez duen Donostia/San Sebastian 2016ko kultur programan antolaturi-ko Europako Hizkuntza Aniztasuna-ren Goi Bileraren bidetik, hizkuntza berdintasuna zuen helburu, eta ez, inola ere, elebitasun jasagarria.

Egia esanda, Txillardegik ez da inoiz modan egon. Orain ere ez, bistan da, baina ez dago dudarik haren ekarpe-nik gabe, euskara bera, euskal kultura (literatura barne) eta politika bera ere askoz menperatuago eongo zirela.

«*Alle Menschen werden Brüder, wo dein sanfter Flügel weilt*», diosku Schillerren poemak; hau da, «gizaki denon bizikidetzat egin dezagun zure hegala goxoak tokia hartzen duene-an».

Bistan da ezin dela bakearen eta kulturaren alde aritu gure herrian nori berea eman gabe eta, jakina, Txillardegik ez du errekonozimendurik jaso, ez bere hirian, ez Euskaltzain-dian, ezta Euskal Herriko Unibertsita-tean ere. Ez da zilegi.

Gure aldetik, bada, lerro hauen bi-dez, harentzako besarkada goxo be-zain estua zabaldu nahi dugu.

Bistan da ezin dela bakearen eta kulturaren alde aritu gure herrian nori berea eman gabe eta, jakina, Txillardegik ez du errekonozimendurik jaso, ez bere hirian, ez Euskaltzaindian, ezta Euskal Herriko Unibertsitatean ere. Ez da zilegi